Txakur abandonatua

Neskur Etxenike Igantzi

Lehen Hezkuntza 5. eta 6. mailak 1. saria

Lesakako Irain IP

Arratsalde batean etxetik ateratzerakoan saski bat aurkitu nuen. Bertan paper bat zegoen. Hau esaten zuen:

Txakur hau ongi zaindu. Nere bizitzaren zati bat izandu da.
Nik ia ezin dut zaindu eta uste dut zuk ongi egingo duzula.
Bete nire nahia, mesedez.

Orduan saski gainetik oihala kendu nuen. Han zegoen txakur txiki bat, hotzez dardarka, ia negarrez, begiak bustirik, oso-oso beldurturik.

Etxean sartu nuen eta saskia su ondoan utzi nuen txakurrak beroa har zezan. Bitartean, txakurrari begira geratu nintzen. Polita zen, marroi-marroia, begiak berdeak zituen oso disdiratsuak. Oraindik dardarka zegoen. Zer pentsatuko zuen? Zer pasatuko zitzaion burutik?

Agian bere jabearengan pentsatzen zegoen, edo zer etxe arraroa zen nirea. Pena handia ematen zidan txakur gaixoak.

Saskia berriro estali eta sutondoan utzi nuen. Liburu bat hartu nuen eta irakurtzen egon nintzen. Ordu bat edo pasatu zen. Txakurra berriro ikustera joan nintzenean nondik etorri ote zen pentsatzen hasi nintzen. Bere jabea hila egongo zen edo berak ekarri zidan? Baina hila baldin bazen, nork ekarri zuen?

Papertxoa berriro irakurri nuen, eta orduan konturatu nintzen atzealdean ere zerbait idatzita zegoela. Bertan, txakurra haurdun zegoela irakurri nuen. Oihala osoa kendu nuen eta txakurra erditu zela eta txakurkume bat zuela ikusi nuen. Txakurkumea amaren antzekoa zen, eta bera ere emea zen.

Ama bezala marroia zen, baina hanketan galtzerdi zuriak zituela zirudien. Begiak berdeak zituen, eta eskuineko begiaren ondoan, pirata partxe bat zirudien mantxa beltz bat zuen. Bere amaren bularrera joan zen eta esnea edaten hasi zen, bere amak mingainarekin laztanak egiten zizkion bitartean.

Orduan konturatu nintzen txakurra haurdun zegoelako ekarri zidatela etxera. Agian bere jabearentzat sobera lan zen bi txakur zaintzea.

—Ez naiz jabearen bila joango -erabaki nuen- berak nahi zuelako eman zidan, eta berriro hartu nahi badu berriz etorriko da nire etxera.

Bi hilabete pasa ondoren txakurkumea handitu zen eta nirekin egotera ohitu zen. Goizero eskolara joaten laguntzen zidan eta nire bila etortzen zen eguerditan.

Egun batean etxean nengoen nire bi txakurrekin jolasten eta txirrina jo zuten. Atea irekitzera joan nintzen eta mutil gazte bat agertu zen.

—Eman mesedez nire txakurrak- esan zidan.

—Ez, nireak dira.

—Nik utzi nizkizun atean.

—Ez dizut sinesten.

—Zer egiten ahal dut zuk sinets dezazun?

—Erran zer idatzi zenuen papertxoan.

—*Txakur hau ongi zaindu. Nere biziaren parte izandu da. Nik ia ezin dut zaindu eta uste dut zuk ongi egingo duzula. Bete nire nahia, mesedez-* esan zuen buruz ikasi balu bezala.

—Baina zuk eman zenizkidan!

—Eta orain zuk itzuli behar dizkidazu.

—Zergatik eman zenizkidan?

—Txakurren jabea nire aita zen eta hil egin zen. Horregatik erabaki nuen txakurrak zuri ematea. Banekien hagitz ongi zainduko zenituela, eta ondoan bizi naizenez, ongi zeudela ikusten nuen.

—Orduan, txakurrek aukera dezatela norekin egon nahi duten, ados?

Txakurrak bien artean ipini genituen. Txakurkumea niregana etorri zen eta bere ama mutilarengana. Argi zegoen txakurkumeak nirekin nahi zuela jaio zenetik nirekin zegoelako eta bien artean lotura berezi bat genuelako. Bere ama, ordea, beste mutilarekin hazi zen eta beraz oroitzen zenez berarekin joan zen.

Baina ama eta kumea horrela banatzea ez zitzaigun ongi iruditzen eta erabaki bat hartu genuen. Bakoitzak bere txakurra eramango zuen etxera, baina bi txakurren arteko lotura moztu nahi ez genuenez, egunero elkartuko ginen. Handik geroztik egunero elkartzen gara bi txakurrak elkar ikusteko eta gainera gu ere lagun minak egin gara!